

1986ko urtarrilaren 15a zen. Iluntzeko albistegietako berri batek dena aldatu zuen: *Lutxana* ontziaren hondoratzea.

*Lutxana* ontziaren kaskoa erdibitu egin zen Aviléseko portura heltzear zela, ekaitzaren ondorioz. Ontziaren helizeek bidaiariak arrastaka eraman ez zitzaizten, 3 pertsona (makineriako burua eta bi ofizialak) makina-gelara jaitsi ziren motorrak amatatzera. Motorrak gelditu bai, baina ez zuten astirik izan berriro ere azalera ateratzeko. Tripulazioak salbamendu-txalupetara igotzea lortu zuen. Pertsona bakarra geratu zen ontzigainean zain, eta arrantza-ontzi batek itsasotik erreskatatu zuen handik ordu batzuetara.

Asteazken iluntze hartan, gu etxean geunden, Deustun. Telefonoa joka hasi zen. Lagunak eta senideak ziren, aitzaz eta amaz galdezka. Gure gurasoak ez zeuden etxean, *Lutxanan* zeuden. Aita ontziko makineriako burua zen, eta ama berarekin joan zen bidaiari, Gabonetan konpainia egiteko asmoaz. Albisteak nahasgarriak ziren, ez genuen informazio argirik. Avilésera joatea erabaki genuen, osaba-izebek lagundu gintuzten.

Aviléseko ospitalera iristean, ama ZIUn zegoen, hipotermia zuen eta negarrez ari zen. Bere esanetan, aitak begiradarekin agur esan eta itzuliko ez zela iradoki zion, makinetara jaitsi aurretik. Amak ez zuen salbamendu-txalupetara jauzi egin, gainontzeko bidaiariak bezala, aita ateratzeko esperantzaz zain geratu baitzen ontzigainean. Ontzia hondoratu zenean, ur gaineko objekturen bati eutsi zion, eta ordubete beranduago, San Esteban de Praviako arrantzale batzuek erreskatatu zuten, euren bizitzak arriskuan jarritz. Avilésen orduak luze egin ziren, ama ospitalean zegoen oraindik, eta ez genuen aitaren berririk. Egun batzuen buruan, etxera itzuli ginen, amarekin, baina aita ez zegoen gurekin.

Egunak joan egunak etorri, egoera onartu ezinik jarraitzen genuen. Administrazio-izapideek ere ez zuten laguntzen, irteerarik gabeko kalezulora eramaten baikintuzten: itsasoko desagertzea zenez, ez genuen heriotza-ziurtagiririk eta, beraz, ezin genituen ez pentsioak ez bekak jaso. Instituzioen aldetik ere, enpatia gutxi sumatzen genuen. Adibidez, behin dei bat jaso genuen itsasoan gorpu erdia topatu zutela esanez, eta ea gure aitak zein arropa zeraman galdezka. Gorpuarekin bat egiten ez zutela jakitean, barkamena eskatu eta deia mozten zuten.

Orain, urteak pasata, ez ditut aipatu gabe utzi nahi garai haietan gure alboan, zaintzen, izan genituen lagun eta senide guztiak. Aurrera egitea ezinezkoa zirudien momentu hartan, eskua luzatu eta, ahal zen moduan, gu aurrera ateratzea lortu zuten.

Azken urteotan, Euskal Herrian, zaintzaren garrantziaz hausnartzen ari gara; eta horren problematizazioak lagundu dit hobeto ulertzen urte haietan jaso genuen zaintzak guregan izan zuen eragina, orduan zaindu gintuzten guztiei esker, pertsona hobekak baikara gaur egun.